


COMPETICIÓN MATEMÁTICA POR EQUIPOS

TALDEKAKO MATEMATIKA TXAPELKETA



SOLUCIONES – EBAZPENAK

Taller de Talento Matemático de Navarra
Nafarroako Matematika Talentu Tailerra

Pamplona, 13 de diciembre 2024

Iruñean, 2024ko abenduaren 13a

Aquí tenéis **ocho problemas** en orden creciente de dificultad. Los puntos asignados a los problemas aumentan según su dificultad. Todos los problemas han sido seleccionados a partir de la colección del «*Rally Mathématique sans Frontières*», competición organizada por la profesora M^a Ángeles Arroyo García para el Taller de Talento Matemático de Aragón.

Instrucciones para los participantes

1. Los alumnos y alumnas pueden organizarse como quieran para trabajar en grupo.
2. Los profesores están presentes pero no intervienen en ningún momento, salvo para aclarar dudas sobre la redacción de los enunciados.
3. El material siguiente está autorizado: regla, compás, escuadra y cartabón, transportador de ángulos, diccionario, tijeras, pegamento, hojas en sucio, calculadora.
4. Las respuestas deben anotarse en la «Hoja de respuestas».

Por contra, el uso de internet y teléfonos móviles está estrictamente prohibido.

Los puntos de los problemas están asignados como sigue:

- **Problemas 1, 2, 3:** 1 punto.
- **Problemas 4, 5:** 2 puntos.
- **Problemas 6, 7, 8:** 3 puntos.

La puntuación máxima es $16 = 2^4 = 10000_2$.

Hona hemen errazetik zailera antolatuta dauden **zortzi buruketa**. Buruketei esleitutako puntuak handituz doaz zailtasuna handituz doan heinean. Buruketa guztiak «*Rally Mathématique sans Frontières*» bildumatik aukeratuak izan dira, M^a Ángeles Arroyo García irakasleak Aragoiko Matematika Talentu Tailerrera antolatutako txapelketa bat.

Parte-hartzaileentzako jarraibideak

1. Irakasleak nahi duten moduan antola daitezke taldeka lan egiteko.
2. Irakasleak bertan daude, baina ez dute inolaz ere esku hartzen, enuntziatuei buruzko zalantzak argitzeko izan ezik.
3. Ondorengo materiala erabiltzea baimenduta dago: erregela, konpasa, eskuaira eta kartaboia, angelu-neurgailua, hiztegia, guraizeak, kola, zirriborro orriak, kalkulagailua.
4. Erantzunak «Erantzun-orrian» idatzi behar dira.

Aitzitik, Internet eta telefono mugikorrek erabiltzea erabat debekatuta dago.

Buruketen puntuak ondorengo moduan esleitu dira:

- **1, 2, 3 buruketak:** puntu 1.
- **4, 5 buruketak:** 2 puntu.
- **6, 7, 8 buruketak:** 3 puntu.

Gehienez $16 = 2^4 = 10000_2$ puntu atera daitezke.

Problema 1 (Cifras y un número).

- a) *¿Cuál es el menor número tal que la suma de sus cifras es igual a 24?*
- b) *¿Cuál es el mayor número de cinco cifras tal que la suma de sus cifras es igual a 24?*

Solución. a) Si el número tuviera una cifra, su suma máxima sería 9. Si el número tuviera dos cifras, su suma máxima sería $9 + 9 = 18$ (número 99). Si el número tuviera tres cifras, su suma máxima sería $9 + 9 + 9 = 27$ (más de 24), por lo que el número menor tendrá tres cifras.

El número más pequeño de tres cifras se obtiene con el menor dígito en la cifra de las centenas, pero que nos permita obtener la suma 24. Si en la cifra de las unidades y decenas ponemos 9, en las centenas tendremos un 6 para obtener 24 ($6 + 9 + 9 = 24$).

Por tanto, **el número menor es 699**.

b) Para obtener el número mayor, necesitamos el mayor dígito en la cifra de la izquierda. Podemos poner como máximo dos nueves, porque con un tercero superaríamos 24 (número 99 _ _). Por otro lado, en las posiciones de la derecha, el menor valor es el 0 (número 99 _ 00). En la posición intermedia, necesitaremos un 6 para obtener la suma 24.

Por tanto, **el número mayor es 99600**.

□

1. buruketa (Zifrak eta zenbaki bat)

- a) *Zein da bere zifren batura 24 ematen duen zenbakirik txikiena?*
- b) *Zein da bere zifren batura 24 ematen duen bost zifrako zenbakirik handiena?*

Ebazpena. a) Zenbakiak zifra bakarra edukiko balu, bere baturarik handiena 9 izango litzateke. Zenbakiak bi zifra edukiko balitu, bere baturarik handiena $9 + 9 = 18$ (99 zenbakia) izango litzateke. Zenbakiak hiru zifra edukiko balitu, bere baturarik handiena $9 + 9 + 9 = 27$ (24 baino gehiago) izango litzateke. Beraz, Zenbakirik txikienak 3 zifra edukiko lituzke.

Hiru zifrako zenbakirik txikiena ehunekoen posizioan ahalik eta zifra txikiena jarritz lortzen da, baina zifren batura 24 lortzea posible dela segurtatuz. Unitateen eta hamarrekoen zifran 9 jartzen badugu, ehunekoen zifran 6 jarri behar dugu batura 24 lortzeko ($6 + 9 + 9 = 24$).

Beraz, **zenbakirik txikiena 699 da**.

b) Zenbakirik handiena lortzeko, ezkerreko zifran ahalik eta digiturik handiena behar dugu. Gehie-nez bi bederatzi jarri ditzakegu, izan ere, hirugarren bat jarritz batura 24 baino handiagoa aterako litzaiguke (99 _ _ zenbakia). Bestalde, eskuineko posizioetan jarri dezakegun zifrarik txikiena 0 da (99 _ 00 zenbakia). Erdiko posizioan, 6 bat beharko dugu batura 24 aterakin.

Beraz, **zenbakirik handiena 99600 da**.

□

Problema 2 (La verdad si miento). Andrés y Pedro dicen siempre la verdad excepto el día de su cumpleaños, que es cuando mienten. Ayer, 5 de marzo, se les preguntó: «¿Cuándo es vuestro cumpleaños?» Andrés respondió: «Ayer». Pedro contestó: «Mañana». Pero hoy, 6 de marzo, a la misma pregunta responden cada uno lo mismo que ayer.

¿Cuándo es el cumpleaños de cada uno?

Solución. Como la respuesta que dan ambos es la misma tanto hoy como ayer, y teniendo en cuenta que solo pueden mentir el día de su cumpleaños, debe ocurrir que uno de ellos cumpla años el 5 de marzo y el otro cumpla años el 6 de marzo.

Si suponemos que Andrés cumple años el 6 de marzo y Pedro cumple años el 5 de marzo, esto no puede ser, ya que Andrés tendría que haber respondido «mañana» en lugar de «ayer» la primera vez que le preguntaron.

Sin embargo, si suponemos que Andrés cumple años el 5 de marzo y Pedro cumple años el 6 de marzo, es sencillo comprobar que esto es coherente con las respuestas dadas. En efecto, el primer día Andrés miente y Pedro dice la verdad, mientras que, el segundo día, Andrés dice la verdad y Pedro miente.

En conclusión, **Andrés cumple años el 5 de marzo y Pedro cumple años el 6 de marzo.** ☐

2. buruketa (Egia gezurra esaten badut) Anderrek eta Peiok egia esaten dute beti, beraien urtebetetze egunean izan ezik, gezurra esaten baitute egun horretan. Atzo, martxoaren 5, honakoa galdetu zitzaien: «Noiz da zuen urtebetetzea?» Anderrek «Atzo» erantzun zuen. Peiok «Bihar» erantzun zuen. Gaur, martxoaren 6, galdera bera egin zaie eta beraiek atzoko erantzun berdinak eman dituzte.

Noiz da bakoitzaren urtebetetzea?

Ebazpena. Biek atzo eta gaur erantzun bera ematen dutenez, eta kontuan hartuz bakarrik beraien urtebetetze egunean gezurra esan dezaketela, nahitaez bietako batek martxoaren 5ean bete behar ditu urteak eta besteak martxoaren 6ean.


Anderrek martxoaren 6ean eta Peiok martxoaren 5ean betetzen dituztela suposatzen badugu, hau ezinezkoa dela ondorioztatuko dugu, izan ere, Anderrek «bihar» erantzun behar zuen galdetu zitzaion lehenengo aldian.

Anderrek martxoaren 5ean eta Peiok martxoaren 6ean betetzen dituztela suposatzen badugu, berriaz, erraza da egiaztatzen hau emandako erantzunekin koherentea dela. Hau da, lehenengo egunean Anderrek gezurra dio eta Peiok egia. Bigarren egunean Anderrek egia dio eta Peiok gezurra.

Beraz, **Anderrek martxoaren 5ean betetzen ditu urteak eta Peiok martxoaren 6ean.** ☐

Problema 3 (Los tres cuadrados). $ABCD$, $DEFH$ y $FGCH$ son tres cuadrados de centros respectivos I , J y K .

¿Cuál es el área del pentágono sombreado $ICKJD$?



Solución. El área del triángulo ICD es la cuarta parte de la del cuadrado $ABCD$, que resulta $10^2 = 100 \text{ cm}^2$. Por tanto, el área de este triángulo es $100 : 4 = 25 \text{ cm}^2$.

Por otra parte, llamamos M al punto de corte entre el segmento JK y el segmento FH . El área del trapecio rectángulo $DJKM$ es

$$\frac{1}{4} + \frac{1}{8} = \frac{2+1}{8} = \frac{3}{8}$$

de la del área del cuadrado $DEFH$, que es $5^2 = 25 \text{ cm}^2$. Lo mismo ocurre con el área del trapecio $MKCH$. Sumando ambas, obtenemos que el área del trapecio $DJKC$ es


$$2 \cdot \frac{3}{8} \cdot 25 = \frac{75}{4} = 18,75 \text{ cm}^2.$$

En total, el área resulta $25 + 18,75 = 43,75 \text{ cm}^2$. La respuesta es **43,75 cm²**

□

3. buruketa (Hiru karratuak) $ABCD$, $DEFH$ eta $FGCH$ hiru karratu dira. Hauen zentroak I , J , K puntuak dira hurrenez hurren.

Zein da $ICKJD$ pentagono ilunduaren azalera?



Ebazpena. ICD triangeluaren azalera $ABCD$ karratuaren laurdena da, zeinak $10^2 = 100 \text{ cm}^2$ balio diuten. Beraz, triangelu honen azalera $100 : 4 = 25 \text{ cm}^2$ neurtzen ditu.

Bestalde, JK eta FH zuzenkiak ebakitzen dira M izendatuko dugu. $DEFH$ karratuaren azalera $5^2 = 25 \text{ cm}^2$ da eta $DJKM$ trapezio zuzenaren azalera karratuaren $3/8$ da, izan ere,

$$\frac{1}{4} + \frac{1}{8} = \frac{2+1}{8} = \frac{3}{8}.$$

Gauza bera gertatzen da $MKCH$ trapezioaren azalerarekin. Biak batuz, $DJKC$ trapezioaren azalera lortzen dugu

$$2 \cdot \frac{3}{8} \cdot 25 = \frac{75}{4} = 18,75 \text{ cm}^2.$$

Beraz, azalera guztira $25 + 18,75 = 43,75 \text{ cm}^2$ balio du. Erantzuna **43,75 cm²** da. □

Problema 4 (A cada cual, su sitio). El cuadrado siguiente es un cuadrado mágico. En cada casilla se debe colocar una vez, y solo una, un número comprendido entre 1 y 9, de manera que las sumas de los tres números colocados en las líneas horizontales, en las columnas verticales y en las diagonales sean idénticas.

- a) Cuando la tabla está correctamente cumplimentada, ¿cuál es la suma de todos los números que figuran en las 9 casillas del cuadrado?
- b) Si el cuadrado de la figura es mágico, ¿cuál es el valor de x ? Escribe uno de los cuadrados mágicos posibles.

		x
	$2x+1$	
$2x+4$		

Solución. a) Como los números son del 1 al 9 sin repetir, la suma pedida es

$$1 + 2 + 3 + 4 + \dots + 9 = \frac{1+9}{2} \cdot 9 = 45.$$

b) Como la suma de todas las filas y columnas ha de ser la misma y hay 3 de cada una, cada fila o columna debe sumar $45 : 3 = 15$. Por tanto, la suma de la diagonal también debe ser 15. Así,

$$x + (2x + 1) + (2x + 4) = 15,$$

de donde deducimos $x = 2$.

Por tanto, los números de la diagonal son 2, 5 y 8. En el centro estará el 5, y los números a un lado y a otro de 5 en vertical, horizontal o diagonal deberán sumar 10 para que la suma de cada línea sea 15. El cuadrado mágico es

4	9	2
3	5	7
8	1	6

Los demás cuadrados mágicos pueden obtenerse a partir de este por rotación y reflexión. ☐

4. buruketa (Bakoitzari bere tokia) Ondorengo karratu hau karratu magiko bat da. Laukitxo bakoitzean 1etik 9ra bitarteko zenbaki bat behin, eta behin bakarrik, jarri behar da. Gainera, lerro horizontaletan, zutabe bertikaletan eta diagonaletan jarritako hiru zenbakien batura berdina izatea lortu behar da.

- Taula behar bezala beteta dagoenean, zein da karratuaren 9 laukitxoetan jarritako zenbaki guztien batura?*
- Irudian azaltzen den karratua magikoa bada, zein da x -ren balioa? Idatzi karratu magiko posible guztien artean bat.*

		x
	$2x+1$	
$2x+4$		

Ebazpena. a) Jarri behar ditugun zenbakiak 1etik 9ra doazenez eta ezin direnez errepikatu, eskatutako batura ondorengo da

$$1 + 2 + 3 + 4 + \dots + 9 = \frac{1 + 9}{2} \cdot 9 = 45.$$

b) Zutabe eta errenkada guztien batura berdina izan behar denez eta bakoitzetik 3 daudenez, zutabe eta errenkada bakoitzaren batura $45 : 3 = 15$ izan behar da. Beraz, diagonalaren batura ere 15 izan behar da. Modu honetan,

$$x + (2x + 1) + (2x + 4) = 15,$$

daukagu, eta hemendik $x = 2$ ondorioztatzen dugu.

Beraz, diagonalaren zenbakiak 2, 5 eta 8 dira. Erdian 5a egongo da, eta 5aren alboan dauden zenbaki bikoteek 10 batu behar dute, bai horizontalean bai bertikalean eta bai diagonalean. Modu honetan lerro bakoitzaren batura 15 izango da. Eskatutako karratu magikoa ondorengo da


4	9	2
3	5	7
8	1	6

Beste karratu magiko guztiak honetatik abiatuz lortu daitezke, hau biratuz eta islatuz.

□

Problema 5 (La piscina). En un parque de forma cuadrada de 70 m de lado se encuentra una piscina rectangular (en gris, en la figura).

¿Cuáles son las dimensiones de esta piscina?



Solución. Observamos que los dos triángulos rectángulos que se tienen en la parte superior izquierda e inferior derecha son isósceles, midiendo sus lados iguales 35 m (mitad del lado del cuadrado).

También podemos observar que los lados pequeños del rectángulo gris miden un tercio de la hipotenusa de los triángulos que acabamos de nombrar y que los lados largos miden lo mismo que la hipotenusa.

Calculamos primero la hipotenusa del triángulo rectángulo por Pitágoras:

$$\sqrt{35^2 + 35^2} = 35\sqrt{2}.$$

Las dimensiones son las siguientes:

Largo del rectángulo

$$\sqrt{35^2 + 35^2} = 35\sqrt{2} \approx 49,497 \text{ m.}$$


Ancho del rectángulo

$$\frac{1}{3} \sqrt{35^2 + 35^2} = \frac{35}{3}\sqrt{2} \approx 16,499 \text{ m.}$$

□

5. buruketa (Igerilekua) 70 m-ko aldea duen karratu formako parke batean igerileku laukizuzen bat dago (grisez irudian).

Zeintzuk dira igerileku honen neurriak?



Ebazpena. Goiko aldean, ezkerrean, eta beheko aldean, eskuinean, dauden bi triangelu angeluzuzenak isoszeleak ere badirela ikusten dugu, beraien alde berdinek 35 cm neurtuz (karratuaren aldearen erdia).

Era berean, laukizuzen grisaren alde txikiak aztertu berri ditugun triangeluen hipotenusen herena neurtzen dutela ikusten dugu. Gainera, alde luzeek hipotenusaren neurri berdina dute.

Lehenik eta behin triangelu angeluzuzenen hipotenusa kalkulatu dugu Pitagorasek teorema erabiliz:

$$\sqrt{35^2 + 35^2} = 35\sqrt{2}.$$

Beraz, neurriak ondorengoak dira:

Laukizuzenaren luzera:

$$\sqrt{35^2 + 35^2} = 35\sqrt{2} \approx 49,497 \text{ m.}$$

Laukizuzenaren zabalera

$$\frac{1}{3} \sqrt{35^2 + 35^2} = \frac{35}{3} \sqrt{2} \approx 16,499 \text{ m.}$$

□

Problema 6 (Para llegar a tiempo). Si viajo a 20 kilómetros por hora, llego con media hora de retraso a mi cita. Si viajo a 30 kilómetros por hora, llego con media hora de adelanto.

¿Cuál debe ser mi velocidad para llegar en punto a mi cita?

Solución. Llamamos x a la distancia que debo recorrer y t al tiempo necesario para llegar a tiempo a mi cita. Teniendo en cuenta la fórmula de la velocidad, $x = v \cdot t$, las condiciones del enunciado se expresan como

$$x = 20 \cdot \left(t + \frac{1}{2}\right), \quad x = 30 \cdot \left(t - \frac{1}{2}\right).$$

Igualando, obtenemos la ecuación

$$20t + 10 = 30t - 15 \implies 10t = 25 \implies t = 2,5 \text{ horas.}$$

Sustituyendo en la segunda ecuación, queda que la distancia a mi cita es $x = 30 \cdot 2 = 60$ kilómetros. En conclusión, la velocidad necesaria para llegar a tiempo resulta $60 : 2,5 = 24$ km/h.

La respuesta es **24 km/h**. □

6. buruketa (Garaiz iristeko) 20 kilometro orduko abiadura bidaiazen badut, ordu erdiko atzerapenarekin iritsiko naiz dudana hitzordura. 30 kilometro orduko abiadura bidaiazen badut, ordu erdiko aurrerapenarekin iritsiko naiz.

Zein izan behar da nire abiadura hitzordura zehatz-mehatz gelditutako orduan iristeko?

Ebazpena. Ibili behar dudana distantzia x izendatuko dugu eta hitzordura garaiz iristeko denborari t . Abiaduraren formula kontuan hartuz, $x = v \cdot t$, enuntziatuak ezarritako baldintzak ondorengo moduan adierazi ditzakegu

$$x = 20 \cdot \left(t + \frac{1}{2}\right), \quad x = 30 \cdot \left(t - \frac{1}{2}\right).$$

Berdinuz, honako ekuazio hau lortzen dugu


$$20t + 10 = 30t - 15 \implies 10t = 25 \implies t = 2,5 \text{ ordu.}$$

Bigarren ekuazioan ordezkatzuz, ibili behar dudana distantzia $x = 30 \cdot 2 = 60$ kilometrokoa dela lortzen dugu. Ondorioz, garaiz iristeko abiadura $60 : 2,5 = 24$ km/h dela lortzen dugu.

Erantzuna **24 km/h** da. □

Problema 7 (La herencia). El señor Matías deja en herencia a sus dos hijos un terreno con forma de triángulo equilátero de 500 m de lado. En el testamento pone como condición que el terreno debe dividirse en dos parcelas de la misma área por medio de una valla paralela a uno de los lados del terreno.

¿Cuál es la longitud de la valla?



Solución. Llamamos x a la longitud de la valla que es el lado del triángulo pequeño. La altura del terreno triangular se obtiene por Pitágoras:

$$h = \sqrt{500^2 - \left(\frac{500}{2}\right)^2} = \sqrt{500^2 - 250^2} = 500 \sqrt{1 - \left(\frac{1}{2}\right)^2} = 250\sqrt{3}.$$

El área del terreno total será

$$S_{ABC} = \frac{500 \cdot 250\sqrt{3}}{2}.$$

Como el terreno ha de dividirse en dos mitades, el triángulo obtenido al trazar la línea divisoria deberá tener la mitad del área del total:

$$\frac{1}{2} S_{ABC} = \frac{1}{2} \cdot \frac{500 \cdot 250\sqrt{3}}{2} = \frac{250^2\sqrt{3}}{2}.$$

El área del triángulo pequeño en función del valor del lado x es

$$\frac{1}{2} \cdot x \cdot \sqrt{x^2 - \left(\frac{x}{2}\right)^2} = \frac{x^2\sqrt{3}}{4}.$$

Igualando ambas expresiones, queda

$$\frac{x^2\sqrt{3}}{4} = \frac{250^2\sqrt{3}}{2}.$$


Es decir, la valla x medirá

$$x^2 = 2 \cdot 250^2 \implies x = 250\sqrt{2} \approx 353,55 \text{ m.}$$

□

7. buruketa (Oinordetza) Matias jaunak 500 metroko aldea duen triangelu aldeakide formako lursail bat utzi die bere bi semei oinordetzan. Testamentuan lursaila hesi baten bidez azalera bereko bi zatitan banatu behar dela jartzen du baldintza gisa, hesia lursailaren alde batekiko paraleloa izanik.

Zein da hesiaren luzera?



Ebazpena. Hesiaren luzerari x deituko diogu, zeina triangelu txikiaren aldea den. Lursail triangeluarraren altuera Pitagorasek teorema aplikatuz lortzen da:

$$h = \sqrt{500^2 - \left(\frac{500}{2}\right)^2} = \sqrt{500^2 - 250^2} = 500 \sqrt{1 - \left(\frac{1}{2}\right)^2} = 250\sqrt{3}.$$

Lursail osoaren azalera ondorengo izango da

$$S_{ABC} = \frac{500 \cdot 250\sqrt{3}}{2}.$$

Lursaila azalera berdineko bi zatitan banatu behar denez, hesiaren lerro banatzailea marrazten dugunean lortzen dugun triangeluak azalera totalaren erdia edukiko du:

$$\frac{1}{2} S_{ABC} = \frac{1}{2} \cdot \frac{500 \cdot 250\sqrt{3}}{2} = \frac{250^2\sqrt{3}}{2}.$$

Triangelu txikiaren azalera ondorengo moduan idatzi dezakegu x aldearen menpe:

$$\frac{1}{2} \cdot x \cdot \sqrt{x^2 - \left(\frac{x}{2}\right)^2} = \frac{x^2\sqrt{3}}{4}.$$

Bi adierazpenak berdinduz, ondorengo ekuazioa lortzen dugu:

$$\frac{x^2\sqrt{3}}{4} = \frac{250^2\sqrt{3}}{2}.$$

Hau da, hesiak x luzera ondorengo izango da:

$$x^2 = 2 \cdot 250^2 \implies x = 250\sqrt{2} \approx 353,55 \text{ m.}$$

□

Problema 8 (2010). *¿Cuál es la suma de las cifras del número $10^{2010} - 2010$?*

Solución. Sabemos que 10^{2010} es un 1 seguido de 2010 ceros. Al hacer la resta, obtenemos

$$\begin{array}{cccccccccc} 1 & 0 & 0 & 0 & \dots & \dots & 0 & 0 & 0 & 0 & 0 \\ & & & & & & - & 2 & 0 & 1 & 0 \\ \hline 0 & 9 & 9 & 9 & \dots & \dots & 9 & 7 & 9 & 9 & 0 \end{array}$$

Las cifras son $2010 - 2 = 2008$ nueves, un 7 y un 0. La suma resulta

$$9 \cdot 2008 + 7 = 18079.$$

□

8. buruketa (2010) *Zein da $10^{2010} - 2010$ zenbakiaren zifren batura?*

Ebazpena. Badakigu 10^{2010} zenbakiaren lehenengo zifra 1 dela eta ondoren 2010 zero dituela. Kenketa eginez, ondorengoa lortzen dugu

$$\begin{array}{cccccccccc} 1 & 0 & 0 & 0 & \dots & \dots & 0 & 0 & 0 & 0 & 0 \\ & & & & & & - & 2 & 0 & 1 & 0 \\ \hline 0 & 9 & 9 & 9 & \dots & \dots & 9 & 7 & 9 & 9 & 0 \end{array}$$

Zifrak $2010 - 2 = 2008$ bederatzi, 7 bat eta 0 bat dira. Orduan batura:

$$9 \cdot 2008 + 7 = 18079.$$

□

¡Muchas gracias por participar!

El viernes 17 de enero... ¡Volveremos con más!

Eskerrik asko parte hartzeagatik!

Urtarrilaren 17an, ostirala... Gehiagorekin itzuliko gara!

